



LEARNING FOR LIFE

IRAKASLEENTZAKO GIDA

ANIZTASUN KOLOREAK



Co-funded by the
Erasmus+ Programme
of the European Union

The European Commission support for the production of this publication does not constitute an endorsement of the contents which reflects the views only of the authors, and the Commission cannot be held responsible for any use which may be made of the information contained therein.

Proiektu zenbakia: 2016-1-ESO1-KA201-02509 1

BAZKIDEAK



salestarrak
URNIETA

Salesianos Urnieta Salesiarrak (*Espainia*)

Proiektuaren koordinatzailea

Asier Irazusta

airazusta@salesianosurnieta.com



Agrupamento de Escolas Rosa Ramalho (*Portugal*)

Teresa Teixeira

erasmus@aerosaramalho.pt



Gimnazjum nr 3 im. Noblistow Polskich w Zespole Szkol nr 2 w Swidniku (*Polonia*)

Marcin Pańnikowski

mpasnikowski@tlen.pl



LICEUL "ALEXANDRU CEL BUN" Botoșani (*Errumania*)

Mihaela Cornelia Achihăiței

mihaelaachihaitei@yahoo.com

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Universidad del País Vasco (*Espainia*)

Kristina Zuza

kristina.zuza@ehu.eus



Pixel (*Italia*)

Lorenzo Martellini

lorenzo@pixel-online.net

AURKIBIDEA

PROIEKTUAREN DATU OROKORRAK	1
ARLOKO HELBURUAK EDO ARLO ARTEKO HELBURUAK	2
JARDUEREN SEKUENTZIA	5
ADIERAZLEAK	6
JARDUERAK	8
AURRETIKO JARDUERAK	8
IKERKETA / GARAPEN JARDUERAK	11
AMAIERAKO JARDUERAK	25



PROIEKTUAREN DATU OROKORRAK

IKASTURTEA	2017-2018	
MAILA	DBH 1 (12-13 urte)	
HIRUHILEKOA		
SAIOAK (Ordutan)	60	
IZENBURUA	ANIZTASUN KOLOREAK	
ARLOAK	Teknologia, Gizarte, Natur Zientziak, Matematika, Atzerriko Hizkuntza eta Ama Hizkuntza.	
ARDATZAK	Munduaren globalizazioa eta herrialde txirotuen egoera. Zergatik hainbesteko aldea? Zer egin dezakegu laguntzeko?	
KONPETENTZIAK	A: ZEHARKAKOAK:	
	KONPETENTZIAK (EB)	JARDUERAK
	1.Ikasten ikastea	4-6-7-8-9-10-11-12-13-14-15-16-17-18-19-20-22-25
	2.Ekimena eta ekintzaile espirtua	4-5-6-7-8-9-10-11-12-13-15-16-17-18-19-20-22-24-25
	3.Interpersonala eta zibikoa	1-3-6-7-8-9-10-11-12-13-14-15-16-17-18-19-20-21-22-24-25
	B: DISZIPLINA KONPETENTZIAK:	
	KONPETENTZIAK (EB)	JARDUERAK
	4.Ama hizkuntza	5-6-7-8-9-10-11-13-15-17-18-22-24
	5.Atzerriko hizkuntza	8-9-10-16-17-18-22-23
	6.Digitala	3-4-6-8-9-10-15-17-18
7.Matematika, zientziak eta teknologia	6-9-10-17-18	
8.Kultura kontzientzia eta adierazpena	5-6-8-9-10-13-15-17-18	





ADIMEN ANITZAK	ADIMENA	JARDUERAK
	1. Interpertsonala	1-3-4-5-6-8-9-10-11-12-14-15-16-17-18-19-20-21-22-25
	2. Intrapertsonala	3-4-6-9-10-17-18-19-21-25
	3. Ikus-espaziala	8-9-11-17-18-19
	4. Gorputz kinestesikoa	20
	5. Musikala	
	6. Hitzeko adierazpena	3-5-6-9-10-11-14-15-16-17-18-19-22-23-24-25
	7. Logiko matematikoa	6-10-15-18
	8. Ekologiko-naturalista	6-9-10-12-16-17-18

<p>ARLOKO HELBURUAK edo ARLO ARTEKO HELBURUAK</p> <p>HELBURU NAGUSIA:</p> <p>Txirotutako herrialdeekiko solidaritatea lortzea eta herrialde hauei bizimodua errazagoa egiten laguntzeko produktu teknologikoa diseinatzea</p> <p>0.Helburu orokorrak</p> <p>0.1. Taldean lan egiten ikastea</p> <p>1.Teknologia</p> <p>1.1. Zientziak eta teknologiak gizartearekin eta ingurumenarekin dituzten interakzioak ikuspegi kritikoz aztertzea, eta garapen iraunkorraren alde modu aktiboan eta arduratsuan parte hartzea, energia sortzeko modu ezberdinak ezagutu eta kritikoki aztertuz</p> <p>1.2. Teknologiako problema bat hauteman eta haren soluzioa diseinatu eta planifikatzea</p>	<p>ARLOKO HELBURUAK edo ARLO ARTEKO HELBURUAK</p> <p>HELBURU NAGUSIA:</p> <p>Txirotutako herrialdeekiko solidaritatea lortzea eta herrialde hauei bizimodua errazagoa egiten laguntzeko produktu teknologikoa diseinatzea</p> <p>0.Helburu orokorrak</p> <p>0.1. Taldean lan egiten ikastea</p> <p>1.Teknologia</p> <p>1.1. Zientziak eta teknologiak gizartearekin eta ingurumenarekin dituzten interakzioak ikuspegi kritikoz aztertzea, eta garapen iraunkorraren alde modu aktiboan eta arduratsuan parte hartzea, energia sortzeko modu ezberdinak ezagutu eta kritikoki aztertuz</p> <p>1.2. Teknologiako problema bat hauteman eta haren soluzioa diseinatu eta planifikatzea</p>
---	--



	<p>2.Gizarte</p> <p>2.1. Taula eta grafiko demografikoak interpretatzea eta sortzea</p> <p>2.2. Giza eskubideen ituna ezagutu eta aztertu, errealitatearekin alderatuz</p> <p>3.Natur Zientziak</p> <p>3.1. Lurraldean ezaugarri naturalak, kokapen geografikoa, paisaia-aniztasuna eta ekosistemak ezagutzea</p> <p>3.2. Giza ekintzek ingurunean duten eraginaz ohartzea, ingurumen-arazoak sortze erroaz konturatuz. (Birziklapena eta berrerabilpena)</p> <p>4.Matematika</p> <p>4.1. Eguneroko egoerei aurre egiteko hizkuntza matematikoa erabiltzea, informazioa ulertuz eta beste arlo batzuetan aplikatzen jakitea. Hau da, testuinguru ezberdinetan zenbakiekin lan egiten jakitea, txanpon aldaketa, azalera, distantzia...(eragiketa matematiko ezberdinen) bidez</p> <p>5.Ama hizkuntza</p> <p>5.1. Ahoz eta idatziz modu txukun , koherente eta zuzenean adieraztea</p> <p>6.Atzerriko Hizkuntza (Ingelesa)</p> <p>6.1. Hiztegia lantzea: materialak, erremintak eta ekintzak</p> <p>6.2. Argibide testuak lantzea</p>
<p>PROIEKTUAREN AURKEZPENA (Ikasleei nola planteatuko zaie)</p>	<p>(Ikastetxeko zuzendariaren eskaria) Aurten maiatzaren 21ean Elkarrizketa eta Garapenerako Aniztasun Kulturalaren Mundu Mailako Eguna ospatu nahi da, munduko errealitate ezberdinak erakutsiko duen jai antolatuz. Munduan herrialde anitzak daude. Anitzak kultur mailan, sozio-ekonomikoki, ohituretan, biodibertsitatean,... Kolore anitz horiek guztiak gure artean ere badaude, eta horretaz baliatuko gara munduko txoko ezberdinetara iristeko. Gure herrian bizi diren pertsonekin kontaktatzen saiatuko gara eta beraien bitartez beraien herria eta kultura ezagutuko dugu. Jakin badakigu ez dela erraza gure herria utzi eta beste norabait joatea, eta kasu askotan migratzaileen herrialdeetako</p>





	<p>egoerari zor zaiola. Beraz, munduan dauden txirotutako herrialde ugarietan lagungarri izan daitekeen produktu teknologiko bat sortuko dugu, haien egunerokoa errazten lagunduko diena, hain zuzen ere, amaiezina den errekurtsua erabiliaz eta dagoeneko erabilitakoak berrerabiliz. Beraz, lagunduko al diegu bizimodua errazten?</p>
AMAIERAKO PRODUKTUA (Erabilgarritasuna bilatu)	<ol style="list-style-type: none">1. Eguzki sukalde / edo bestelako objektu teknologiko bat eraikitzeko beharrezkoa den liburuxka osatzea (instrukzioak), aukeratzeko den herrialde txirotu batera / batzuetara bidaltzeko, egindako maketaren argazkiekin batera.2. Maiatzaren 21eko <i>Elkarrizketa eta Garapenerako Aniztasun Kulturalaren Mundu Mailako Eguna</i> ospatzeko elkartasun jai antolatuko dugu. Munduko errealitate ezberdinak barne-biltzen dituen argazki erakusketaz lagunduta. Han eta hemengo bizimodu ezberdintasuna erakutsiko duen erakusketarekin batera taldeka kultura desberdinak elkartrukatu dira eta sortutako eguzki sukaldeen edo produktu teknologikoen erakusketa burutuko da.





JARDUEREN SEKUENTZIA

Proposatzen diren jardueratatik, beharrezkoak jotzen ditugu beltzez daudenak eta besteak aukerakoak izango dira, hauek eskolako baliabideen eta proiektuan parte hartzen duten irakasleen araberakoa izango da.

A. AURRETIKO JARDUERAK

1. **Jarduera: Talde dinamika burutu**
2. **Jarduera: Proiektuaren aurkezpena**
3. **Jarduera: Talde plana osatu**
4. **Jarduera: Zer dakit - Zer jakin beharko nuke ***
 - a. **Jarduera: Zer dakit, zer jakin beharko nuke? Nondik dator erabiltzen dugun energia?**
 - b. **Jarduera: Zer dakit, zer jakin beharko nuke? Mundua orekatua al dago?**
 - c. **Jarduera: Zer dakit, zer jakin beharko nuke? Ondo birziklatzen al dugu?**
5. **Jarduera: Herrialdeak eta arduradunak izendatu**

B. IKERKETA/ GARAPEN JARDUERAK

6. **Jarduera: Zer nolakoa da mundua?**
7. **Jarduera: Ikusten dut, pentsatzen dut, galdetzen dut ***
8. **Urratutako giza eskubideak ****
9. **Jarduera: Herrialde bakoitzaren inguru naturala ezagutu**
10. **Jarduera: Nola birziklatzen da? Nola kudeatzen da zaborra?**
11. **Jarduera: Nola zaindu dezakegu ingurunea. Birziklatze prozesuak azaldu **/***
12. **Jarduera: Birziklatze instalazio batera irteera**
13. **Jarduera: Herrialdeetako Posterrak sortu ****
14. **Jarduera: Tarteko ebaluazioa ***
15. **Jarduera: Jaiaren antolaketa**
16. **Jarduera: Ikusten dut, pentsatzen dut, galdetzen dut ***
17. **Jarduera: Nola sor dezakegu energia?**
18. **Jarduera: Energia Mindmapa ****
19. **Jarduera: Sukaldearen diseinuaren hastapena**
20. **Jarduera: Sukaldearen ekoizpena ****
21. **Jarduera: Talde lanaren txostena eta ebaluazioa**





22. Jarduera: Proiektuen aurkezpena prestatu

23. Jarduera: Ingeleseko argibideak sortu

C. AMAIERAKO JARDUERAK

24. Jarduera: Festa eta erakusketa aurrera eraman (proiektuen aurkezpena festan egin)

25. Jarduera: Talde planaren eta sortutako produktuaren ebaluazioa burutu *

* Ikur hau daramaten jarduerak ebaluatuak izango dira

** Ikur hau daramaten jarduerak kalifikatuak izango dira

ADIERAZLEAK

Helburu nagusia

Dagokion herrialdearen inguruan informazioa egoki bildu ditu

Energia berriztagarriak ezagutu eta hauen alde onak eta txarrak zerrendatzen ditu

Eguzki sukaldea eraikitzeko argibide eskuliburua sortu du

0. Helburu orokorrak

0.1.1. Ikasleak taldeko helburuak betetzen ditu

0.1.2. Ikasleak helburu indibidualak betetzen ditu

0.1.3. Ikasleak bere ardurak eta karguak betetzen ditu

1. Teknologia

1.1.1. Energia mota ezberdinak identifikatu ditu

1.1.2. Energia fosil eta berriztagarrien arteko aldea identifikatu du

1.1.3. Programazioko atalak modu egokian osatu dituzte

1.1.4. Denbora ondo kudeatu dute

1.1.5. Produktu teknologikoa egoki eraiki dute

2. Gizarte

2.1.1. Taula eta grafiko demografikoak interpretatzen eta sortzen ditu

2.1.2. Giza eskubideen ituna ezagutu eta aztertu du, errealitatearekin alderatuz

2.1.3. Giza eskubideen ituna ezagutu eta beharrezko informazioa eskuratu du





3. Natur Zientziak

- 3.1.1. Herrialdearen inguruko datuen bilaketa burutu du
- 3.1.2. Lortutako datuak, interpretatu eta egoki azaldu ditu
- 3.1.3. Dagokion herrialdeko zaborren kudeaketaren inguruko informazioa eskuratu du
- 3.1.4. Birziklatze prozesuaren aurkezpen egokia burutu du

4. Matematika

- 4.1.1. Distantziazko unitate aldaketak burutzen ditu
- 4.1.2. Txanpon aldaketak burutzen ditu
- 4.1.3. Txanponak balio dutenaren arabera sailkatzen ditu
- 4.1.4. Forma geometriko ezberdinen azalera kalkulatu ditu
- 4.1.5. Dagokion herrialdea forma geometrikoen baitan marrazten du, gutxi-gorabeherako azalera lortzeko

5. Ama Hizkuntza

- 5.1.1. Puntueltasunez entregatu du
- 5.1.2. Modu argian aurkezten du
- 5.1.3. Egitura egokia erabili du
- 5.1.4. Modu koherentean eta ondo kohesionatuta aurkeztu du
- 5.1.5. Arau gramatikalak eta ortografikoak zuzentasunez erabiltzen ditu

6. Atzerriko Hizkuntza (Ingelesa)

- 6.1.1. Erremintak eta materialak atzerriko hizkuntzan adierazten ditu
- 6.1.2. Argibideak modu ulerkorrean idatzi ditu

TRESNAK:

- **Errubrikak**
 - o ANIZTASUN KOLOREAK errubrika
- **Hausnarketak eta ebidentziak**
 - o Hausnarketa (4J - 13J - 14J - 23J)



**JARDUERAK****AURRETIKO JARDUERAK**

1. Jarduera: Talde dinamika. Kohesioa			Saioak: 1 ordu
KONPETENTZIAK	Interpersonala eta zibikoa	ADIMENAK	Interpersonala
HELBURUAK	Taldean lan egiten ikastea		

Jardueraren deskribapena:

Elkar ezagutzeko eta taldearen garrantziaz jabetzeko NASaren dinamika bat burutuko dugu.

Irakasleak emango dizkizue azalpenak eta eman beharreko urratsak.

Irakaslearentzat zehaztapenak:

NASaren jolasa erabil daiteke, banakako emaitzak eta taldekoak modu erraz batean alderatzeko. Horretarako, ikus 1J: Nasa eranskina.

2. Jarduera: Proiektuaren aurkezpena			Saioak: 30 min
KONPETENTZIAK		ADIMENAK	Interpersonala Hitzeko adierazpena
HELBURUAK	Txiroitutako herrialdeekiko solidaritatea lortzea eta herrialde hauei bizimodua errazagoa egiten laguntzeko produktu teknologikoa diseinatzea		

Jardueraren deskribapena:

Aurten maiatzaren 21ean Elkarrizketa eta Garapenerako Aniztasun Kulturalaren Mundu Mailako Eguna ospatu nahi da, munduko errealitate ezberdinak erakutsiko duen jaia antolatuz. Munduan herrialde anitzak daude. Anitzak kultur mailan, sozio-ekonomikoki, ohituretan, biodibertsitatean,... Kolore anitz horiek guztiak gure artean ere badaude, eta horretaz baliatuko gara munduko txoko ezberdinetara iristeko. Gure herrian bizi diren pertsonekin kontaktatzen saiatuko gara eta beraien bitartez beraien herria eta kultura ezagutuko dugu. Jakin badakigu ez dela erraza gure herria utzi eta beste norabait joatea, eta kasu askotan migratzaileen herrialdeetako egoerari zor zaiola. Beraz, munduan dauden txiroitutako herrialde ugarietan lagungarri izan daitekeen produktu teknologiko bat





sortuko dugu, haien egunerokoa errazten lagunduko diena, hain zuzen ere, amaiezina den errekurtsioa erabiliaz eta dagoeneko erabilitakoak berrerabiliz. Beraz, lagunduko al diegu bizimodua errazten?

Irakaslearentzat zehaztapenak:

Aurkezpenaren bitartez ikasleak proiektura erakarri behar ditugu. Garrantzitsua da giro berezia sortzea proiektuarekiko motibazioa lortzeko, momentu honetan piztu baitezakegu beraien interesa. Ondorioz, aurkezpena egiteko garrantzitsua da bezeroaren (zuzendaria, guraso elkarteak,...) parte hartzea lortzea, eta beraien azaltzea aurtengo festaren ideia ikasleei.

Egokia da baita ere, gela 1 baino gehiago ditugun kasuetan, gela guztiak bildu eta denei elkarrekin proiektua aurkeztea. Aurkezpenean, bezeroez gain, proiektuko irakasle guztiek parte hartzen saiatuko gara, beraien papera esperto bezala proiektuan zehar zein izango den aurkeztuz.

3. Jarduera: Talde plana osatu		Saioak: 45 min	
KONPETENTZIAK	Interpersonala eta zibikoa Ekimena eta ekintzaile espiritua Digitala	ADIMENAK	Interpersonala Intrapersonala
HELBURUAK	Taldean lan egiten eta ardurak hartzen ikastea		

Jardueraren deskribapena:

Lan kontratua edo talde plana egingo dugu. Horretarako, talde planak hiru atal izango ditu: taldeko helburuak, helburu indibidualak, eta karguak edo ardurak.

Helburu indibidualak: Ikasle bakoitzak 2 helburu indibidual izango ditu: Bat irakasle taldeak proposatutakoa eta bestea berak proposatutakoa.

Talde helburuak: Bi helburu guztientzat berdinak izango dira eta beste bi, talde bakoitzak bereak jarriko ditu.

Erantzukizunak edo ardurak: Irakasleak izendatuko dituzte.

Irakaslearentzat zehaztapenak:

3J TALDE PLANA eranskinaren erabileraren azalpena.

TALDE PLANA PRESTATZEN orrialdea:





Lehenik maila / taldea / gela / taldekideen izenak beteko dituzte.

Ondoren 1-2-4 egitura kooperatiboa erabiliko dute talde helburuak finkatzeko: (Ikus 7J: 1,2,4 egitura eranskina)

Taldekide bakoitzak proposatuko ditu taldeko bi helburu. Ondoren, bikoteka elkartuko dira (A-B eta D-E bikoteak). Bikote bakoitzak bi talde helburu proposatuko ditu, aurretik bakarka zehaztutakoan artean adostuta. Azkenik laukotea elkartuko da eta guztien artea erabakiko dituzte taldeko bi helburuak.

TALDE PLANA orrialdea:

Orrialde honetan automatikoki azalduko zaizkie maila, taldea gela, taldekideen izenak eta taldeko helburuak eta helburu indibidualak bete beharko dituzte: bat irakasle taldeak esango dio eta bestea berak jarriko du. Honela taldekide guztiek beteko dituzte **helburu indibidualak**.

Karguak edo ardurak irakasleek izendatuko dituzte.

Lehenengo hiru jarduera hauek burutzeko, interesgarria litzateke, goiz bat horretarako bideratzea. Modu jarraian egitea, proiektuari garrantzia handiagoa emateko.

4. Jarduera: Zer dakit – Zer jakin beharko nuke			Saioak: 1 ordu
KONPETENTZIAK	Ikasten ikastea Ekimena eta ekintzaile espirtua Digitala	ADIMENAK	Interpersonala Intrapersonala
HELBURUAK	Taldean lan egiten ikastea		

Jardueraren deskribapena:

Ikasle talde bakoitzak hausnartuko duzue proposatutako jardueraren inguruan zer dakizuen eta jarduera hori burutzeko zer jakin beharko zenuketen.

Irakaslearentzat zehaztapenak:

Irakasleak arreta berezia jarriko die ikasleek emandako erantzunei, honen arabera erabaki dezake zer jarduera proposatu behar dien proiektua ondo burutzeko. Proiektua hiru ikasgaietan modu paraleloan garatuko da, beraz, Zer dakit, zer jakin beharko nuke jarduera ere hiru ikasgaietan paraleloki garatuko da.





- a) Mundua orekatua al dago, zergatik gertatzen dira migrazioak? (zientzia-gizarte)
- b) Ondo birziklatzen al dugu? (zientzia-natur)
- c) Nondik dator erabiltzen dugun energia? (zientzia-tekno)

4J: “Zer dakit - Zer jakin beharko nuke” eranskina erabiliko dugu.

5. Jarduera: Herrialdeak eta arduradunak izendatu			Saioak: 1 ordu
KONPETENTZIAK	Ekimena eta ekintzaile espiritua Ama Hizkuntza Kultura kontzientzia eta adierazpena	ADIMENAK	Interpersonala Hitzezko adierazpena
HELBURUAK	Taldean lan egiten ikastea		

Jardueraren deskribapena:

Talde bakoitzak landuko duen herrialdea zehaztu beharra dago, talde bakoitzari bat esleituz. Horretarako proiektuan lanean arituko garen ikasle guztiak bilduko gara eta talde bakoitzak berea proposatuko du. Herrialde desberdinak aukeratu baditugu primeran, berdinak aukeratu baditugu adostasuna lortu beharko dugu edo zozketa egingo dugu herrialdeen banaketa egiteko.

Irakaslearentzat zehaztapenak:

Proiektu honetan, ikasleek beraien herrian bertan edo inguruko herrietan bizi diren etorkinekin kontaktuan jarri eta beraien herrialdeetako lanketa egitera bultzatu behar ditugu. Gertuko bizipenak eta kontakizunak balio handia izango baitute lanketa honetan. Izan ere, horrela etorkin hauen inplikazioa lortu nahi da, azken festan beraien presentzia garrantzitsutzat jotzen baita. Kasu askotan ezinezkoa izango da, talde bakoitzak kontaktu bat lortzea, hau horrela denean, irakasleak proposatuko ditu faltan dauden herrialdeak.

IKERKETA / GARAPEN JARDUERAK

6. Jarduera: Zer nolakoa da mundua?			Saioak: 2 ordu x 2
KONPETENTZIAK	Ikasten ikastea Ekimena eta ekintzaile espiritua Interpersonala eta zibikoa Ama hizkuntza	ADIMENAK	Interpersonala Intrapersonala Hitzezko adierazpena Logika matematikoa





	Digitala Matematika, zientziak eta teknologia Kultura kontzientzia eta adierazpena		Ekologia-naturalista
HELBURUAK	Taula eta grafiko demografikoak interpretatzea eta sortzea Eguneroko egoerei aurre egiteko hizkuntza matematikoa erabiltzea, informazioa ulertuz eta beste arlo batzuetan aplikatzen jakitea. Hau da, testuinguru ezberdinetan zenbakiekin lan egiten jakitea, txanpon aldaketa, azalera, distantzia... (eragiketa matematiko ezberdinen) bidez Ahoz eta idatziz modu txukun, koherente eta zuzenean adieraztea		

Jardueraren deskribapena:

Talde bakoitzak bere herrialdearen inguruko hainbat informazio lortu beharko duzue.

1. Kokapena (Kontinente eta koordenatu geografikoak).
2. Azalera (adierazi metro karratuetan)
3. Euskal Herritik hara dagoen distantzia (adierazi kilometrotan)
4. Ordu eremuak
5. Datu demografikoak: jaiotza tasa, heriotza tasa, batz besteko heriotza adina... Erantsi herrialde horretako biztanleri piramidea.
6. Erabiltzen duten dirua (6J: Txanponen balioa eurotan eranskina erabili)
7. Aisialdia (zertan igarotzen dute beraien denbora libre)
8. Kultura: hizkuntza, jantziak, folklorea...

Ebaluatzeko tresnak (errubrikak...):

Ebaluatuko da.

Irakaslearentzat zehaztapenak:

6J eranskina erabil daiteke jarduera hau garatzeko matematikarako ikasgaien.

6J eranskina nolakoa da mundua?

Jarduera honetan bildutako informazio guztia erakusketarako posterrak eta mural erraldoia egiteko erabiliko da.

7. Jarduera: Ikusten dut, pentsatzen dut, galdetzen dut		Saioak: 2 ordu	
KONPETENTZIAK	Ikasten ikastea Interpersonala eta zibikoa Ekimena eta ekintzaile espirtua	ADIMENAK	Interpersonala Intrapersonala Hitzezko adierazpena





	Ama hizkuntza		
HELBURUAK	Giza eskubideen ituna ezagutu eta aztertu, errealitatearekin alderatuz		

Jardueraren deskribapena:

1.- Bilatu interneten Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren testua.

2.- Kontutan hartuta GE hogeita hamar direla gelako talde bakoitzak bost landuko ditu (hamabost gela bakoitzean).

1go taldeak : 1etik 5era

2. taldeak: 6tik 10era

3. taldeak: 11tik 15ra

4. taldeak: 16tik 20ra

5.- taldeak: 21etik 25era

6.taldeak: 26tik 30era

Taldekide bakoitzak itunaren zati bat irakurri eta ulertu beharko du, ondoren gainontzeko taldekideei ulertutakoa azaltzeko. Hemen azaldutakoa idazkariak idatziko du.

Ondoren bozeramaileak gainontzeko gelakideei azalduko dizkie landutako bost giza eskubideak.

3.- Foro eztabaida bat irekiko da non galdera hauei erantzun beharko zaie taldeka.

Bidezkoa al da, batzuk hainbeste edukitzea eta beste batzuk horren gutxi?

Zergatik gertatzen da hori?

Denek al daukagu elikatzeko eskubidea ase?

Zer beste giza eskubide urratuta somatzen dituzte?

4.- Guzti honen ondoren pentsatzeko taula hau bete behar da “Orri birakaria” egitura kooperatiboa erabiliz. Bakoitzak kolore bat erabiliko du, bertan ideiak txertatuz. Ikus, 7J: orri birakaria eranskina.

Ebaluatzeko tresnak (errubrikak...):



Ebaluatuko da.

Irakaslearentzat zehaztapenak:

7J: Ikusten dut - pentsatzen dut - galdetzen dut eranskina erabili behar da jarduera honetan.

Foro eztabaidarako 1,2,4 jarduera egitura kooperatiboa (7J: 1-2-4 egitura eranskina) proposatzen da.

Idea guztiak bateratzeko, talde bakoitzak ideia ezberdin bat proposatu beharko du zerrenda bateratu bat lortzeko. Beraz, esanda dagoen ideiarik ezingo dute errepikatu.

Puzzle (7J: Buruhausgarria - Puzzlea egitura eranskina)

8. Jarduera: Poster erraldoia (urraturiko Giza Eskubideak)			Saioak: 3-4 ordu
KONPETENTZIAK	Ikasten ikastea Interpersonala eta zibikoa Ekimena eta ekintzaile espiritua Kultura kontzientzia eta adierazpena	ADIMENAK	Interpersonala Ikus-espaziala
HELBURUAK	Taula eta grafiko demografikoak interpretatzea eta sortzea Lurraldean ezaugarri naturalak, kokapen geografikoa, paisaia-aniztasuna eta ekosistemak Eguneroko egoerei aurre egiteko hizkuntza matematikoa erabiltzea, informazioa ulertuz eta beste arlo batzuetan aplikatzen jakitea. Hau da, testuinguru ezberdinetan zenbakiekin lan egiten jakitea, txanpon aldaketa, azalera, distantzia... (eragiketa matematiko ezberdinen) bidez Ahoz eta idatziz modu txukun, koherente eta zuzenean adieraztea		

Jardueraren deskribapena:

Jaialdiaren aurretik, eta eskolan giroa sortzeko, atarian kokatzeko poster erraldoia sortu nahi da langetaren berri emateko.

Horretarako collage teknika erabiliko da posterra sortzeko. Bertan, mundua irudikatu beharko da eta lanean ari garen herrialdeak mapan kokatu beharko ditugu, hauen inguruan lortutako hainbat informazio zabalduaz. Hala nola, ohitura ezberdinak azaltzen dituzten argazkiak, bertan sortzen diren elikagai ezberdinak, herrialdearen azalera, biztanleria...

Bertan garrantzitsua izango da ere, herrialde hauetan gehien urratzen diren giza eskubideak moduren batean adieraztea.

Beraz, zuen oraingo lana zuen herrialdeko argazkiak topatzea eta karpeta batean gordetzea izango da.



**Irakaslearentzat zehaztapenak:**

Posterrean islatu beharreko informazioa aldakorra izan daiteke.

Collage teknika proposatzen da, honen tamaina horren handia izanik, taldeak modu erosoan lan egin dezaten, azken momentuan talde guztiak bateratuz eta denen artean amaiera emanaz. Egokia litzateke ekintza honetarako plastikako irakaslearen laguntza izatea.

9. Jarduera: Inguru naturala		Saioak: 2 ordu	
KONPETENTZIAK	Ikasten ikastea Ekimen eta ekintzaile espiritua Interpersonala eta zibikoa Ama Hizkuntza Atzerriko hizkuntza Digitala Matematika, zientziak eta teknologia Kultura kontzientzia eta adierazpena	ADIMENAK	Interpersonala Intrapersonala kus-espaziala Hitzezko adierazpena Ekologiko-naturalista
HELBURUAK	Lurraldeen ezaugarri naturalak, kokapen geografikoa, paisaia-aniztasuna eta ekosistemak ezagutzea Ahoz eta idatziz modu txukun, koherente eta zuzenean adieraztea		

Jardueraren deskribapena:

Ikasleek dagokien herrialdeen inguruko informazio ezberdina lortu beharko dute. Bertako landaredi, elikagai zein abereen inguruko informazioa bilduko dutelarik, aurrerago posterra osatu ahal izateko. Informazio hori euskaraz, gazteleraz edo ingeleraz egon daiteke.

Ebaluazio tresnak (errubrikak ...):

Ebaluatua izango da.

Irakaslearentzat zehaztapenak:

9J eranskina LANDAREAK

9J eranskina ANIMALIAK

9J eranskina ELIKAGAI TIPIKOAK

10. Jarduera: Nola birziklatzen / kudeatzen da zaborra?		Saioak: 3 ordu	
KONPETENTZIAK	Ikasten ikastea Interpersonala eta zibikoa	ADIMENAK	Interpersonala Intrapersonala





	Ekimena eta ekintzaile espiritua Ama hizkuntza Atzerriko hizkuntza Digitala Matematika, zientziak eta teknologia Kultura kontzientzia eta adierazpena		Hitzezo adierazpena Logiko matematikoa Ekologiko-naturalista
HELBURUAK	Giza ekintzek ingurunean duten eraginaz ohartzea, ingurumen-arazoen sortze erroaz konturatuz (Birziklapena eta berrerabilpena) Informatzeko, adierazpen matematiko desberdinak erabiltzea (zatikiak, portzentuak, taulak..) Ahoz eta idatziz modu txukun, koherente eta zuzenean adieraztea		

Jardueraren deskribapena:

Ikasleek dagokien herrialdean zaborra kudeatzeko erabiltzen den politikaren inguruko informazioa lortu beharko dute, gure errealitatean gertatzen denarekin alderatuz (portzentuak edo pisu unitate bitartez).

Jarduerari bukaera emateko, talde bakoitzak ezagutu duen errealitatea eta informazioa lortzeko izan dituen zailtasunak taldeari kontatuko dizkio.

“Politica de reciclaje en cada país” aztertu eta datuak bildu. Ondoren talde bakoitzak dagokion herrialdeko datuak bildu eta ikasleen herrialdearekin konparatuko ditu. Dagokizuen herrialdeko datuak murrizak badira ere, zuen herrialdeko datuekin alderatu eta bertan idatzi.

https://www.ecoembes.com/es/ciudadanos/envases-y-proceso-reciclaje/reciclaje-en-datos/barometro?gclid=EAlaIqobChMkFwqx4qf1wIVyp3tCh0jEw8vEAAAYASAAEgLVgfD_BwE

Irakaslearentzat zehaztapenak:

10J eranskina erabili. Garrantzizkoa da, alde zuzenetik bertakoekin kontaktua duten taldeek beraiengandik ahal duten informazio gehiena lortzea.

Hainbat kasutan oso zaila izan daiteke informazioa lortzea, beraz, jarduera honekin malgua izatea proposatzen da. Kasu horietan, lor dezaketen informazio apurrarekin hausnarketa txikia egin dezakete.

Informazioa partekatzeko (burututako hausnarketa) ekintza borobilean egitea egokia litzateke, denak maila berean kokatuaz.

11. Jarduera: Birziklatze prozesuak / arrazoiak

Saioak: 4 ordu





KONPETENTZIAK	Ikasten Ikastea Interpersonala eta zibikoa Ekimena eta ekintzaile espiritua Ama hizkuntza	ADIMENAK	Interpersonala Ikus-espaziala Hitzezko adierazpena
HELBURUAK	Giza ekintzek ingurunean duten eraginaz ohartzea, ingurumen-arazoaren sortze erroaz konturatuz. (Birziklapena eta berrerabilpena) Ahoz eta idatziz modu txukun, koherente eta zuzenean adieraztea		

Jardueraren deskribapena:

Talde bakoitzak, birziklatze-gai baten bidea jarraitu beharko du, dendan erosten dugunetik birziklatze prozesua bukatu eta berriro erabiltzen den arte. Hona hemen adibide batzuk:

1 taldea: tetrabrikak

2 taldea: sagar bat

3 taldea: olioak

4 taldea: kristalezko botila

5 taldea: lata

6 taldea: egunkaria

Ebaluatzeko tresnak (errubrikak...):

Ebaluatuko da

Irakaslearentzat zehaztapenak:

11J eranskina erabiliko da jarduera honetarako.

12. Jarduera: Birziklatze plantara irteera		Saioak: 3 ordu	
KONPETENTZIAK	Ikasten ikastea Interpersonala eta zibikoa Ekimena eta ekintzaile espiritua	ADIMENAK	Interpersonala Ekologiko-naturalista
HELBURUAK	Giza ekintzek ingurunean duten eraginaz ohartzea, ingurumen-arazoaren sortze erroaz konturatuz (Birziklapena eta berrerabilpena)		

Jardueraren deskribapena:





Inguruko birziklatze planta batera irteera burutuko da, bertan egoten diren arazoak eta jarraitzen den prozesua ezagutzeko.

Irakaslearentzat zehaztapenak:

Irakasleak antolatu beharko du irteera.

13. Jarduera: Herrialdeetako posterrak			Saioak: 3-4 ordu
KONPETENTZIAK	Ikasten ikastea Interpersonala eta zibikoa Ekimena eta ekintzaile espiritua Ama hizkuntza Kultura kontzientzia eta adierazpena	ADIMENAK	Ikus-espaziala Logiko matematikoa Ekologiko-naturalista
HELBURUAK	Dagokion herrialdearen inguruan informazioa egoki bildu du eta azaldu du		

Jardueraren deskribapena:

Aurreko jardueretan bildutako informazio guztiarekin festan erakusgai egongo diren posterrak sortu beharko dira. Horretarako orain arte lortu duzuen informazio guztia google aurkezpen dokumentuan jarri beharko duzue.

Ebaluatzeko tresnak (errubrikak...):

Ebaluatua izango da.

Irakaslearentzat zehaztapenak:

Aldez aurretik maketazio bat izan beharko dugu, poster guztiek itxura antzekoa izan dezaten edo libre utz daiteke. Tamaina A1.

14. Jarduera: Talde planaren ebaluazioa burutu			Saioak: 2 ordu
KONPETENTZIAK	Ikasten ikastea Interpersonala eta zibikoa	ADIMENAK	Interpersonala Hitzezko adierazpena
HELBURUAK	Taldean lan egiten ikastea eta erregulatzea		

Jardueraren deskribapena:





Talde planean jarri ditugun taldeko helburuak, helburu indibidualak eta karguak ebaluatuko ditugu, zer egiten ari garen bereziki ondo eta zertan hobetu behar dugun hausnartzeko.

Irakaslearentzat zehaztapenak:

3J TALDE PLANA eranskina erabili.

15. Jarduera: Jaiaren antolaketa			Saioak: 2-3 ordu
KONPETENTZIAK	Ikasten ikastea Ekimena eta ekintzaile espiritua Interpersonala eta zibikoa Ama hizkuntza Digitala Kultura kontzientzia eta adierazpena	ADIMENAK	Interpersonala Hitzezko adierazpena Logiko matematikoa
HELBURUAK			

Jardueraren deskribapena:

Taldeak binaka bateratuko dira jarduera hau burutzeko eta bakoitzari ardura bat esleituko zaio. Taldeak esleitutako lan hori modu egokian gauzatzear arduratu beharko du.

Ardurak:

1. Kartelaren diseinua
2. Aurrekontua
3. Material bilketa
4. Espazioaren antolaketa
5. Diru-laguntzak eskatu
6. Herriko aldizkariarekin elkarrizketa
7. Familientzako oharra sortu
8. Elkarte ezberdinekin kontaktuak egin
9. Gonbidapenak sortu...

16. Jarduera: Ikusten dut, pentsatzen dut, galdetzen dut.			Saioak: 2 ordu
KONPETENTZIAK	Ikasten ikastea Interpersonala eta zibikoa Ekimena eta ekintzaile espiritua	ADIMENAK	Intrapersonala Hitzezko adierazpena Ekologiko-naturalista





	Atzerriko hizkuntza		
HELBURUAK	Zientziak eta teknologiak gizartearekin eta ingurumenarekin dituzten interakzioak ikuspegi kritikoz aztertzea, eta garapen iraunkorraren alde modu aktiboan eta arduratsuan parte hartzea, energia sortzeko modu ezberdinak ezagutu eta kritikoki aztertuz Teknologiako problema bat hauteman eta haren soluzioa diseinatu eta planifikatzea		

Jardueraren deskribapena:

Lehendabizi, bideo bat ikusiko dugu, herrialdeetako baliabide energetikoak eta kontsumi daitekeen energia mota ezberdinak ezagutzeko. Horrekin, energia mota ezberdinen inguruan informazioa jasotzen hasiko zarete.

Ondoren, talde bakoitzari 16J txostena banatuko zaio, non gure Herrialdean kontsumitzen diren energia mota ezberdinen inguruan pentsa araztera bideratuko zaituztelarik, horretarako taula batean datu ezberdinak bildu beharko dituzue.

Bukaeran, hori horrela izatearen inguruko hainbat suposizio egin beharko dituzue. Talde bakoitzak lortutako ondorioak talde handian elkarbanatuko ditugu. Jardun honetan, energia lortzeko modu ezberdinen alde on eta txarren inguruan hausnarketa ere burutu nahi delarik.

Bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=duVhnEfbTP0>

<https://www.youtube.com/watch?v=MFxtK6zSbEA> (Mapping the world's energy sources)

Datuak: 16J txostena / taula

17. Jarduera: Nola sor dezakegu energia?			Saioak: 2 ordu
KONPETENTZIAK	Ikasten ikastea Ekimen eta ekintzaile espirtua Interpersonala eta zibikoa Ama hizkuntza Atzerriko hizkuntza Digitala Matematika, zientziak eta teknologia Kultura kontzientzia eta adierazpena	ADIMENAK	Intrapersonala Interpersonala Ikus espaziala Hitzezko adierazpena Ekologiko-naturalista
HELBURUAK	Zientziak eta teknologiak gizartearekin eta ingurumenarekin dituzten interakzioak ikuspegi kritikoz aztertzea, eta garapen iraunkorraren alde modu aktiboan eta arduratsuan parte hartzea, energia sortzeko modu ezberdinak ezagutu eta kritikoki aztertuz Teknologiako problema bat hauteman eta haren soluzioa diseinatu eta planifikatzea		

Jardueraren deskribapena:



Jarduera honetan energia nola sortzen den ikertuko duzue. Taldearen barruan lana bananduko duzue, eta energia mota desberdinak taldekideen artean bananduko dituzue. Horretarako etxean energia mota bakoitzaren inguruan bideoak bilatu eta ikusiko dituzue. Bideoak ikusi ostean, klasean puzzle teknika erabiliko dugu energia iturri ezberdinak sakonago aztertzeko.

Ikertu behar dituzuen energia sorrera motak hauek dira:

- Energia Nuklearra
- Ikatza
- Petroleoa
- Gas naturala
- Presa hidroelektrikoak
- Haize errotak
- Eguzkia energia

18. Jarduera: Energia MindMapa			Saioak: 1 ordu
KONPETENTZIAK	Ikasten ikastea Ekimen eta ekintzaile espiritua Interpersonala eta zibikoa Ama hizkuntza Atzerriko hizkuntza Digitala Matematika, zientziak eta teknologia Kultura kontzientzia eta adierazpena	ADIMENAK	Intrapersonala Interpersonala Ikus espaziala Hitzezko adierazpena Logiko matematiko Ekologiko-naturalista
HELBURUAK	Zientziak eta teknologiak gizartearekin eta ingurumenarekin dituzten interakzioak ikuspegi kritikoaz aztertzea, eta garapen iraunkorraren alde modu aktiboan eta arduratsuan parte hartzea, energia sortzeko modu ezberdinak ezagutu eta kritikoki aztertuz Teknologiako problema bat hauteman eta haren soluzioa diseinatu eta planifikatzea		

Jardueraren deskribapena:

Irudiz eta hitzez lagunduta Energia moten sailkapena jasoko duen mapa mentala egingo dugu.

Ebaluatzeko tresnak (errubrikak...):

Ebaluatua izango da.

Irakaslearentzat zehaztapenak:

Orain arte jasotako informazioa ondo ulertu eta egoki klasifikatu dutela baloratu ahal izateko modua da.





Banakako jarduera da.

Ebaluaziorako irizpideak ikasleekin zehaztuko dira eta ondoren MindMapak ikasleen artean zuzenduko dituzte, 18J ebaluazio taula erabiliz.

MindMapean jasotako datuak ongi barneratu direla ziurtatzeko, ezagutza minimoen aukerazko kontrola egin daiteke.

19. Jarduera: Sukaldearen diseinu hastapena			Saioak: 1 ordu
KONPETENTZIAK	Ikasten ikastea Interpersonala eta zibikoa Ekimena eta ekintzaile espiritua	ADIMENAK	Interpersonala Intrapersonala Ikus-espaziala Hitzezko adierazpena
HELBURUAK	Zientziak eta teknologiak gizartearekin eta ingurumenarekin dituzten interakzioak ikuspegi kritikoz aztertzea, eta garapen iraunkorraren alde modu aktiboan eta arduratsuan parte hartzea, energia sortzeko modu ezberdinak ezagutu eta kritikoki aztertuz Teknologiako problema bat hauteman eta haren soluzioa diseinatu eta planifikatzea		

Jardueraren deskribapena:

Hainbat eredu ikusi eta bakoitzak dituen alde onak eta txarrak aztertu ondoren, ikasle bakoitzak bere diseinua eta eraikuntzarako erabil daitezkeen materialak zerrendatuko ditu. Norberak bere diseinua eginda, taldekideei pentsatutakoa azaldu eta talde bakoitzak burutuko duen diseinua zein den erabakiko du.

Eguzki Sukaldeak nola eraiki erakusten duen web-orria:

<http://solarcooking.org/espanol/>

http://es.solarcooking.wikia.com/wiki/Red_Global_sobre_la_Cocina_Solar

20. Jarduera: Sukaldearen ekoizpena			Saioak: 3-4 ordu
KONPETENTZIAK	Ikasten ikastea Interpersonala eta zibikoa Ekimena eta ekintzaile espiritua	ADIMENAK	Interpersonala Gorputz kinestesikoa
HELBURUAK	Zientziak eta teknologiak gizartearekin eta ingurumenarekin dituzten interakzioak ikuspegi kritikoz aztertzea, eta garapen iraunkorraren alde modu aktiboan eta arduratsuan parte hartzea, energia sortzeko modu ezberdinak ezagutu eta kritikoki aztertuz Teknologiako problema bat hauteman eta haren soluzioa diseinatu eta planifikatzea		



**Jardueraren deskribapena:**

Talde bakoitzak bere sukaldea ekoiztuko du.

Prozesuko argazkia atera behar dituzue 23.jarduera burutzeko.

Ebaluatze tresnak (errubrikak...):

Ebaluatua izango da.

Irakaslearentzat zehaztapenak:

Sukaldea ekoizteko saioak eta aurreko jarduerak burutzeko beharrezkoak diren saioak tartekatu egingo dira, klasean eta tailerrean burutzen direnak tartekatuz.

21. Jarduera: Talde lanaren txostena eta ebaluazioa			Saioak: 2 ordu
KONPETENTZIAK	Interpersonala eta zibikoa	ADIMENAK	Interpersonala Intrapersonala
HELBURUAK	Zientziak eta teknologiak gizartearekin eta ingurumenarekin dituzten interakzioak ikuspegi kritikoz aztertzea, eta garapen iraunkorraren alde modu aktiboan eta arduratsuan parte hartzea, energia sortzeko modu ezberdinak ezagutu eta kritikoki aztertuz Teknologiako problema bat hauteman eta haren soluzioa diseinatu eta planifikatzea		

Jardueraren deskribapena:

Produktu orok, eraikitzeke jarraitutako pausuak eta zailtasunak azaltzen dituen txostena osatu behar duzue. Teknologiako irakasleak emango dizue eredua.

Ebaluatze tresnak (errubrikak...):

Ebaluatua izango da.

Irakaslearentzat zehaztapenak:

Txostenak atal ezberdinak izango ditu, eta atal bakoitza taldekide batek bete beharko du, baina ondo egotearen ardura denena izango da. Horrela, osatutako atal guztien artean batz besteko kalifikazioa burutuko da. Baina, taldekideren batek bere atala ez badu betetzen, zati hori ez da batz bestekoa egiteko kontuan izango. 21J-Proiektuaren txostenaren txantiloia eranskina erabili.





22. Jarduera: Proiektuaren aurkezpena prestatzen			Saioak: 3-4 ordu
KONPETENTZIAK	Ikasten ikastea Interpersonala eta zibikoa Ekimena eta ekintzaile espiritua Ama hizkuntza Atzerriko Hizkuntza	ADIMENAK	Interpersonala Hitzezko adierazpena
HELBURUAK	Zientziak eta teknologiak gizartearekin eta ingurumenarekin dituzten interakzioak ikuspegi kritikoz aztertzea, eta garapen iraunkorraren alde modu aktiboan eta arduratsuan parte hartzea, energia sortzeko modu ezberdinak ezagutu eta kritikoki aztertuz Teknologiako problema bat hauteman eta haren soluzioa diseinatu eta planifikatzea		

Jardueraren deskribapena:

Proiektuaren azken aurkezpena aniztasunaren festan burutu beharko duzue. Hori ondo prestatzeko klasean aurkezpenaren entsegu bat egingo duzue, bertan hobekuntzak proposatzen joango gara elkarlanean ikasleak eta irakasleak.

Irakaslearentzat zehaztapenak:

Helburua auto eta ko-ebaluzioa egitea izango da, azken aurkezpenerako hobetu behar dituzten arloak identifikatzeko eta ondoren hobetzen saiatzeko.

23. Jarduera: Argibideak sortu			Saioak: 3 ordu
KONPETENTZIAK	Atzerriko hizkuntza	ADIMENAK	Hitzezko adierazpena
HELBURUAK	Atzerriko hizkuntzako hiztegia lantzea: materialak, erremintak eta ekintzak Argibide testuak lantzea		

Jardueraren deskribapena:

Atzerriko hizkuntzan sortutako produktu teknologikoa eraikitzeko argibideak sortu beharko dituzue. Horretarako, prozesua irudiz erakutsiko duzue (beraz, gogoratu eraikuntza fasean argazkiak atera beharko dituzuela) eta irudietan agertzen dena hitzez adierazi beharko duzuela

Horretarako, berriazko hiztegia eta eraikuntza prozedurak adierazten jakin beharko duzue, eta baita testu deskriptiboak ere.

Ebaluatzeko tresnak (errubrikak...):

Ebaluatua izango da.



**Irakaslearentzat zehaztapenak:**

Talde guztientzako txantilo bat sortzea gomendatzen da. Sortutako argibideak zuzentzeko irizpideak, beraiek ezarriko dituzte irakaslearen laguntzarekin. Beraiek ere zuzenketaren parte izan daitezke.

AMAIERAKO JARDUERAK

24. Jarduera: Erakusketa festa			Saioak: 4 ordu
KONPETENTZIAK	Ekimena eta ekintzaile espiritua Interpersonala eta zibikoa Ama hizkuntza	ADIMENAK	Hitzeko adierazpena
HELBURUAK	Ahoz eta idatziz modu txukun, koherente eta zuzenean adieraztea		

Jardueraren deskribapena:

Orain arte prestatutako guztia plazaratzeko eguna da, maiatzaren 21arekin ospatzen den KULTUR ANIZTASUNAREN ALDEKO NAZIOARTEKO EGUNA. Bertan, sortutako mural erraldoia, herrialdeen posterrak eta eguzki sukaldeen erakusketaz gain (sukaldeak probatuko dira, funtzionamendua aztertu ahal izateko), kontaktatu ditugun pertsona eta talde ezberdinak parte-hartzeko momentua ere bada. Beraien herrialdeetako jaki zein ekimen kultural ezberdinekin jaia borobilduko dugu.

25. Jarduera: Talde plana eta produktuaren ebaluazioa			Saioak: 1 ordu
KONPETENTZIAK	Ikasten ikastea Interpersonala eta zibikoa Ekimena eta ekintzaile espiritua	ADIMENAK	Interpersonala Intrapersonala Hitzeko adierazpena
HELBURUAK	Taldean lan egiten ikastea		

Jardueraren deskribapena:

Bi ebaluazio burutu beharko dituzue:

Alde batetik, talde plana baloratuko dugu eta bestetik, sortutako produktuari kalitate zigilua jarri beharko diozue. Hau da, kalifikatu beharko duzue. Horretarako, kontutan izango da ondo





funtzionatzen duen, eraikitzeke erraza den edo ez... Eta hobekuntzak egin behar izatekotan, zer motatakoak diren aipatu beharko dituzue.

Ebaluatzeke tresnak (errubrikak...):

Ebaluatua izango da.

Irakaslearentzat zehaztapenak:

3J eranskina talde plana baloratzeko.

25J-Kalitate zigilua eranskina erabili. Garrantzitsua izango da azpimarratzea, produktuaren balorazio bat dela eta ez norbanakoarena.

